

AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



Saririk onena, herrikideen eta etxekoen maitasuna

Balentria egin zuen Jokin Lizeaga urnietarrak, kirol jarduerara itzuli zen egunean. Lagun eta gertuko askoren babesa jaso zuen, gainera. 8-9

euskara bada errenta

ERRENTA AITORPENA EUSKARAZ

APIRILAREN
12TIK AURRERA
AUTOLIKIDAZIOA
ONARTZERAKOAN,
SAKATU EUSKARAREN
AUKERA



Informazio gehiago:
www.andoaindarraeuskaraz.eus
www.urnieta.eus





Fondon, Fernandez, Oria, Fernandez, Rezola eta San Jose. Txakolin dastaketa, Santa Krutz eguneko hitzordu maitatuetakoa da auzotarrentzat. AIURRI

Ospakizunik gabeko Santakrutzak

Laugarren olatuan birusa Gipuzkoan oldartu da, eta itxiera perimetralaren mugan egotean murrizketa gehiago ezar daitezke datorren astean. Santakrutzak ospatuko liratekeen astean, hain zuzen. Ospakizunik gabeko egunak izango dira, aurtengoak

Erredakzioa ANDOAIN

Azken bi urteetan egon diren aldaketak irudikatzeko eredu bat erabili beharko bagenu, Santa Krutz jaietakoa oso aproposa da. Duela ez asko, 2019an, jaiak bere horretan ospatu ziren. Birusaren arrastorik gabeko Andoain hartan hamaika ekitaldi egin ziren. Guzti-guztiak kalean, eta ez jende gutxiren alboan.

Birusa agertu zen 2020aren hasieran, eta konfinamendu gogor batean murgildu behar izan genuen. Askatasun pixka bat lortzen hasi ginenean iritsi ziren jaiak. Etxeko giroan ospatu ziren, nahiz eta pantailak besteekin ospatzeko aukera eman. Jai Batzordeak parte hartzea sustatu zuen, eta erantzun bikaina jaso zuen. Gaizki geunden, baina

etorkizuna hobea izango zen itxaropena ez zuen ia inork ukatzen. Hilabeteak igaro dira, birusa olatuz olatu gaurdaino iritsi da eta Santa Krutz jaiak bere horretan antolatzeko aukerarik ez da izango. Askoren animoan eragin dezakeen albiste da, jaiak auzo eta herri izaera hori indartzeko behar beharrezkoa delako. Denok ere komunitatearen parte garelako sentitzeko premia dugulako.

Jaien ordez zuhurtzia eskatu dute agintariek. Gaur arinkeriak jokatzeko kutsatze berriak sor ditzakeelako bihar, eta kutsatzeen ondorioz ospitaleratze berriak hurrengo egunetan. Eta horixe da egun hauetako drama: Gipuzkoan ospitalak betetzen ari direla. Ez da festarako sasoia.

ORMENDI
KIROLAK



Kale Berria, 2. Andoain
943 591 806
ormendikirolak@euskalnet.net



**Amatxoren
eguna**





Olajaunatik botatzen zen pregoia, lehen. 2007an, aldiz, Maria Jesus Fernandezek Kale Nagusitik bertatik eman zion hasiera jaiari. AIURRI



Maiatzaren 3an jaiak alaitzen duen kuadrillak, txupinazoa bota zuen 2018an. AIURRI

Iragana gogoan hartuko dute, irudi bidez

Jai Batzordeak aurreko urteetako irudiak ipiniko ditu auzoko merkatalguneetan: "Santakrutzak era xume batean aurkeztuko dira aurreko, atzerantz begiratzuz eta aurreko urteez oroitzeko aukera eskainiz, momentuak eskatzen duen ardurarekin"

Erredakzioa ANDOAIN

Bazkari, dastaketa, kontzertu eta pilaketak sor daitezkeen ekitaldiak antolatu ezinik, Jai Batzordeak iragana gogoan hartuko du. Helburua etorkizuneari ipinita dago, aurtengorako aukerak eskasak direlako: "Zaindu gaituzten, datorren urtean berriro bueltan izan ditzagun auzo bazkaria, pintxo lehiaketa, kuadrillen eguna, erreka jaitsiera, sagardo lehiaketa, txosnatako kontzertuak, elkarrekin danborradak eta herriko eragile desberdinek urtero antolatzen dituzten hainbat eta hainbat ekintza gehiago. Gora Santakrutzak!".

Ez baita baldintza egokirik ematen, jaiak behar bezala antolatzeko: "Aurreko urtetik egoera orokorra aldatu bada ere,

Santakrutzak bezalako jai parte hartzaileak aurrera eramatea ezinezkoa dela ikusten dugu, eta arduragatik ezin ditugu antolatu nahiko genituzkeen gauzak. Gune itxietan jende kopuru mugatuarekin ibili beharrak halaber beharrez zenbait jende egitarauaz gozatu ezinean utziko luke, gure jaien ideiarekin aurkako zentzuan dagoena, ez baitzaigu justua iruditzen.

Gune irekietan antolatzeaz pentsatzean, aldiz, aurkako egoerarekin aurkitzen gara, ikusleen segurtasun baldintzak mantendu eta pilaketak saihestea lan nekeza iruditzen baitzaigu, parte hartzaileena bermatzeak jada nahikoa lan suposatzen baitu, inoren gainean egon behar izan gabe".

Herria bizirik!

Gora Andoain! Gora Santakrutzak!

943 593 777

Zumea 18, ANDOAIN

arruti

gozategia



Duela hamabost urteko Goitibehera jaitsierako argazkia. AIURRI



Luis Mari Arnaiz sardin-jatean lanean, 1994ko irudian. AIURRI

Pandemia aurretik desagertu ziren ekitaldiak

Izurritea iragana eta oraina bereizteko mugarria izango da, historia hurbilean. Badira jaiari lotutako hainbat hitzordu izurritearen aurretik desagertu zirenak. Besteak beste, goitibehera lasterketa, katerik gabeko lasterketa, sardin jatea edota Elegante eguna



Garikoitz Asensio, katerik gabeko bizikleta lasterketan. AIURRI

SALDIAS
ARRANDEGIA

Herria bizirik!

ZUMEA KALEA, 5
ANDOAIN
943 590 704



ZUGANDIK GERTUI GORA ANDOAINI

AMABI

haur eta gazte jantziak
0-16 urte

943 57 31 62

Zumea kalea, 15. ANDOAIN



Elegante eguna hiru urtez antolatu zen. Argazkia 2013koa da. AIURRI

BULEGOTIK



MIKEL ARBERAS KAZETARIA

**Santakrutzak,
hain gertu eta hain urrun**

Santakrutz jaien atarian gaude. Parranda egiteko eta sozializatzeko gogo nabari da giroan. Normala da. Bigarren urtez, ez da egonen erreka jaitsierarik, ez kuadrilla egunik, ez kontzerturik, ezta txosnagunerik ere. Urteko egunik gogoangarrienak izan ohi ziren; kuadrilla guztietan sortzen ziren pasadizoak eta lagunartean soilik kontatzen ziren bitxikeriak. Bada, beste urtebetez ezingo dugu lagunartean normaltasunez elkartu, Bekoplazako lupetzean urte osoan gordetako oinetako zaharrak zikindu, tabernaz taberna igaro, gaupasaz Tahonara gosaltzera joan edota txosnak itxi baino lehen Flying Free abestu. Datorren urtean,

euria ez egiteko desiatu beharrean, musukorik gabe lagunartean ibiltzeko nahia azalduko dugu.

Ez kezkatu, hurrengo urtea normaltasunera itzultzeko urtea izango da. Berriro ere elkartzeko, bazkaltzeko, afaltzeko eta bidaiatzeko urtea. Gutxinaka aurrera goaz, oso astiro, baina bagoaz. Goikoek hitzemandakoa betetzen dutenean, berriro ere ametsetako Santakrutzak ospatuko ditugu. Behar den bezala. Bitartean, sare sozialetan urteak atzera argitaratutako argazkiekin konformatu beharko dugu, oraingoz. Hortaz, esan dezakedan gauza bakarra, zera da... Animo eta eutsi horri!

LI
Arropa eta osagarriak
Gora Andoain!

Kale Nagusia 6
Andoain
Tel. 943591224

LEIZARAN
Gestión Inmobiliaria

Gora Santakrutzak!

Kale Nagusia, 53-behea. ANDOAIN
Tel: 943 591 856
Tel: 619 661 323
e-mail: info@inmoleizaran.com
www.inmoleizaran.com

- Etxebizitzak
- Lokalak
- Alokairuak

KUKUTEI
HARATEGIA - URDAITEGIA
Gora Andoain!
Hautatutako produktuak

Kale Nagusia, 59
943 593 152
ANDOAIN

Ernaitza
liburudenda

Liburu, joku hezitzaile eta oparietan aukera zabala

Gora Santakrutzak! Gora Andoain!

Zumea, 9 ANDOAIN. 943 592 459 - ernaitza@yahoo.com

POSTONTZIA

ELA, LAB, CCOO, SATSE, STEILAS, ESK SINDIKATUAK

Udaletan eta foru aldundietan ere, enplegua sortu eta kontsolidatu

ELA, LAB, CCOO, SATSE, STEILAS eta ESK sindikatuok, langile publikoek bizi duten egoera lazgarria dela ikusita, mobilizazio-dinamika bat antolatu dugu EAEko sektore publiko osoan. Udaletan eta Foru Aldundietan ere behin-behinekotasuna eta pribatizazioak dira nagusi; era berean, enplegua sortzeko eta ezkutuan dauden lanpostuak azaleratzeko arazo handiak izaten ari gara.

Udal eta Foru Aldundietan ditugun agintarien aldetik, nekez ikusten ari gara zerbitzu publikoak indartzearen aldeko jarrera. Behin-behinekotasun tasak geroz eta handiagoak dira; milaka langile daude behin-behineko kontratazioaren abusuaren. Gure ustez, zerbitzu publikoaren pribatizazio nahiak daude behin-behinekotasun tasa jasanezin hauen atzean, zerbitzu publikoak ahaldu eta negozio egitea, hain zuzen.

Horrekin batera, lan estrukturalak aurrera ateratzeko milaka lanpostu lanpostuen zerrendetatik kanpo mantentzen dituzte gure agintariak. Lanpostu horiek ez aitortzeak, negoziatorako ateak parez-pare irekita uzten ditu. Kezkagarria da udaletan eta foru aldundietan diru publikoa esku pribatueta nola bideratzen den ikustea.



Andoingo udal langileek bi elkarretaratze egin dituzte, denbora gutxian. AIURRI

Horretarako, noski, erakundeetako kudeatzaileek erakunde publikoetan malgutasuna eta ezegonkortasuna sortzea beharrezkoa dute.

Ezin dugu, era berean, negozioazio kolektiboaren egoera aipatu gabe utzi.

DINAMIKA HONETAN DEI EGITEN DIZUEGU APIRILAREN 22KO MOBILIZAZIOETAN PARTE HARTZERA

Madriletik datozen inposizio guztiak zintzo aplikatzen dira gure administrazioetan. Hori nahikoa ez eta, udaletan negozioazio kolektiboa ez da existitzen; aldebakartasuna eta inposizioa dira negozioazio mahaletan aurkitzen ditugunak. Zentzu honetan Eudelek egoerarekiko daukan ardura salatu nahi dugu. Negozioazio kolektiboa bultzatu baino, Madriletik etortzen diren irizpideak proposatzera mugatzen baita.

Hori guztia dela eta udal eta Foru Aldundiei behar diren

neurriak hartu ditzatela eskatzen diegu: estrukturalak diren lanpostuak aitortzea, estrukturalizatzea eta behin-behineko langileak kontsolidatzeko behar diren neurriak hartzea, hain zuzen. Salbuespen egoera da, eta horri aurre egiteko salbuespenezko neurriak eta lege mekanismoak behar ditugu. Horrekin batera, ezinbestekoa da negozioazio kolektiboaren aktibazioa ematea. Mobilizazioak beharrezkoak dira, besteak beste, aldarrikapen hauek eskatzeko:

- Orain mahai gainean dauden legegitza-proiektuen aldaketa, nahikoak ez baitira, enpleguaren finkapena bermatzen ez dutelako eta behin-behineko kontratazioaren gehiegikeriarekin amaitzea ez dakartelako.
- EAEko erakunde guztiei eta erakunde horietan ordezkariak duten indar politikoei, aparteko kontsolidazio finkatze-prozesuak, bermatzaileak, negoziatuak eta nahitaez bete beharrekoak gaitzen dituzten arau-aldaketak bultzatu ditzaten.
- Beharrezko mekanismoak artikulatzea.
- Kontratazioan behin-behinekotasunaren abusua

ezabatzea behartzen dutenak.

- Egiturazko behar guztiak identifikatu eta azaleratzen dituztenak.
- Plantillak areagotu behar dira, behar horien arabera, behin-behinekotasun handiko egungo agertokira itzultzea saihestuz.
- Abian dauden LEPEk kolektibo bakoitzaren beharren arabera aparteko neurriak barne hartzea, eta negozioazio kolektiboaren emaitza izatea.
- Pribatizazioen eta kanporatzeen politikari amaiera ematea.
- Plantillak gaztetzeko eta aurretiko erretiroak sustatzeko plan bat.

Pandemia honetan zerbait argi geratu bada, zerbitzu publikoak eta, gure kasuan, udalak eta foru aldundiak indartzeko beharra izan da.

ELA, LAB, CCOO, SATSE, STEILAS eta ESK sindikatuak grebara aterako gara apirilaren 22an EAEko sektore publiko osoan, enplegu publikoa sortzearen, aldi baterako enplegua finkatzearen eta hau pairatzen duten aldi baterako langileen kontsolidazioaren alde. Dinamika horren barruan, dei egiten dizuegu apirilaren 22ko mobilizazioetan parte hartzera.



andoainDARRA
euskaraz

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:
Ebeiz etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 40 eurokoa da. Umietan, 32 euro.
Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea.
20140, Andoain.
Tel.: 943 300 732.
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus
@aiurri

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.

Erredaktoreak: Xabier Lasa, Mikel Arberas, Alba Cabrera Jauregi, Andoni Urbistondo.

Maketatzailea: Maddi Trutxuelo.

Kudeaketa, harpidetza:
Garbiñe Ugarteandia.
idazkaritza@aiurri.eus

Publizitatea: Fer Irazu.
publizitatea@aiurri.eus

Banatzaleak: Rocio Arias (Andoain), Axun Jauregi, J. Mari Sagaseta (Umietan).

Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea.

Zorion agurrak, merkatu txikiak:
diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus.
Whatsapp-a: 619 163 537.

Lege Gordailua: SS-1078/04.

ISSN: 1698-4870.

Tirada: 4.000 ale.

Inprimategia: Zerua Multimedia.

EKOIZLEA:



ALIATUAK:



BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:



DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



ZIURTAGIA:



BABESLEAK:

Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.

AIURRIK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Oroituz elkarteak antolatutako ekitaldia

Andoainen frankismoak eraildako edo zapaldutako herritarrak gogoan hartu zituzten larunbatean, Oroituz elkarteak Alfaro plazan antolatu zuen ekitaldian. Loreak, aureskua, txalaparta eta bertsoa ez ziren falta izan, aitortza eta oroimen ekitaldian



Ane Fernandez Urki dantza taldeko dantzaria, Alfaro parkean. AIURRI

Xabier Lasa ANDOAIN

Ohikoa baino formatu txikiagoan burutu zen ekitaldia, osasun-egoerak baldintzatuta. Lore eskaintzaz gain, txalapartariak (Juan Godoi eta Jon Urtasun), aureskua (Xabi Olazabal akordeoia, eta, Ane Fernandez dantzaria) eta bertsolariak (Xabier Aranzeta eta Unai Ormaetxea) aritu ziren, Oroituzeko kide den Lurdes Arteagak aurkeztuta. Andoaindik kanpo bizi diren biktimen senide ugari, urtero hurbiltzen direnak, aurtien ezin izan zuten etorri. Aldi berean, kantutegi antifaxistarekin emandia eskaini ohi duen Banda Errepublikanoak ere ezin izan zuen bere emandia egin.

Arteagak izurriteak eragindako hildakoak gogoan hartu zituen, eta, bereziki, Andoingo herriaren memoria historiko kolektiboan bere ekarpena egin izan dutenak. Gehitu zuenez, "zailtasunak zailtasun, aurrera goaz, eta gaurkoan, ekitaldi xume honen eskutik, berriro ere adierazi nahi dugu gogoan dauzkagula frankismoaren biktimak. Demokraziaren, sexu berdintasunaren, justizia sozialaren, nazio eskubideen... eta beste

hainbat balio aurrerazaleen alde ari zirelako zapaldu zituzten. Eta horrexegatik goraipatu nahi ditugu gaurkoan".


Bi bertso hunkigarri

Punttuka bertso-eskolako Xabier Aranzeta 'Toxak' eta Unai Ormaetxea esanahiez betetako bertso bana kantatuz, aurreko belaunaldiak eskerrak eman nahi izan zizkien:

Xabier Aranzeta Toxak:

Eskerrik asko attona memoriaren zaindari, eskerrik asko amona zu ere borrokalari. Eskerrik asko anarka, sozialista, gudari, garai hartan zail zen arren, euskaraz mintza zenari. Fusilamendu hormetan entzun zen irrintziari, borrokaren deia darra jarraitzen zuen orori (bis)

"ZAILTASUNAK ZAILTASUN, AURRERA GOAZ, GAURKOAN EKITALDI XUMEAREKIN"



Ormaetxea eta Aranzeta. AIURRI

Gure bizitza hobetzeko berea eman zuenari.

Unai Ormaetxea:

Andoingo zenbat gizon joan zirenak gudari, baina abestu nahi diot etxean gera zenari. Gizona gerra joanda dirua ez zen emari, eskutitzak gutxi eta urduritasun ugari. Historiak berriz ere ez dizue iten argi, baina hemen harro nahi det zuengatikan nabari (bis) Etxetik ere izan ziteken emakume ta gerlari.



Egitaemoaren aurkezleak, Andoingo udaletxean. AIURRI

Sare sozialak eta teknologia berriak aztergai

Gizarte Zerbitzuen sailak antolatutako zikloa. Asteartean mahai-ingurua izan zen, eta ostegun honetan hitzaldia

Erredakzioa ANDOAIN

Sare sozialak eta teknologia berriak erabiltzeko orduan, nerabeek aurki ditzaketen arrisku egoerak aztertzeke asmoz, bi hitzaldi antolatu ditu Andoingo Udalak. Jolasei eta apustuei buruzkoa izan zen lehena, asteartean antolatu zutena.

Ostegun honetan izango da bigarrena, informazio eta komunikazio teknologiei buruzkoa. Doakoa da saioa, baina gonbidapena beharrezkoa izango da. Udaleko Gizarte Zerbitzuen sailean edota hitzaldia hasi aurretik Basteron bertan eskuratu daiteke.

Menpekotasunaren arriskua

Maidar Lainez alkateak, Ana Sanz teknikariak eta Iker Alustiza udaleko programa sozio-dukutibo eta psikosozialeko koordinatzaile eta Hezizerbeko langileak aurkeztu zituzten jardunaldiak. Lainezen hitzetan, "teknologia berriak gure eguneroko bizitzaren parte bihurtu dira, internet, sare sozialak, apustuak, on-line jokoak eta konektatutako beste zerbitzu teknologiko batzuk. Zalantzarik gabe, aurrerapen teknologiko horiek ezin konta onura ekarri dizkigute, gure eguneroko bizitza erraztuz". Baliabide berri horien erabilera menpekotasunean bilakatzen denean sor daitezkeen arriskuak aipatu zituen ondoren: "erabilera arduratsua egiten denean, teknologia berriak erabilgarriak eta onuragarriak dira, baina gehie-

Hitzaldia ostegunean

"Nerabezaro konektatua. Internet, mugikorrak eta sare sozialak, ezinbestekoak seme-alabentzat?". Hizlaria: Leire Lasuen Gutierrez, Pantallas Amigas elkartearen hezitzailea.

Apirilak 22, osteguna. 18:30, Bastero.

gikeriek menpekotasuna sortzen dute, eta gure bizitza baldintzatuta dezakete. Horrexegatik prebentzioa oso garrantzitsua da".

Alustizak jardunaldien nondik norakoa azaldu zuen: "Errealitateetik eta egunerokotasunean lan egiten dugun kasuetan ikusten dugunagatik, 2018aren amaieran gai errepikakorra eta kezka zen. Guraso, tutore eta abarrentzako eta haur eta nerabeentzako prebentziotik, Andoainen haur eta nerabeentzako gune seguruak eta tratatu onekoak erakitzeke lanean eragin dezakegula uste dugu".

"GUNE SEGURUAK ETA TRATU ONEKOAK ERAKITZEKE LANEAN ERAGIN DEZAKEGULA USTE DUGU"



Jokin Lizeaga helmuga zeharkatzeko unean, 02:14:55-eko denbora eginez. AIURRI

Andoni Urbistondo URNIETA

28 kilometroko lasterketa 2 ordu eta laurden eskasean egin eta 48 ordura dago egina elkarrizketa hau, Jokinek asteleheneko lan jarduna eginda, errutina berreskuratuta. Larunbateko emozio pilaketa eta oihartzun mediatiko handia ahal izan duen moduan barneratu du. Oialumen izan zen bazkaltzen bere eta emaztearen sendiarekin. Jatetxean zeudenek ez zekiten Lizeaga bertara joango zenik bazkaltzera, baina jangelara sartzean jaso zuen txalo zaparrada beroak herriar eta lagunak pozitu zituen ekimen polita burutu zuela konbentzitu zuen.

Zer moduz zaude? Oinaze edo minik bai?

Beno, lasterketan ez nuen arazo handirik eduki, jendearen emozio eta irribarre keinuak, maitasuna... Jendea ezagutzeko astia izan nuen, gozatu nuen, eta gustura. Helmuga iritsita peroneoan mina jarri zitzaidan, eta azken bi egunetan giharretako minarekin egon naiz, baina pasako da.

Txanpain botilari trago ederra eman zenion helmuga pasata.

Bai, gustukoa dut, egarrituta iritsi nintzen eta botilan zegoen guztia barruraino joan zen, bai. **Begiko arazoa azaldu zen.**

Bai, baina ez da arazo bat, dagoeneko. Bigarren kilometrorako bista lainotzen eta galtzen hasi nintzen, bizi-bizi atera nintzelako, eta gero, helmugan,

“Jendea pozik, barrez, malkotan ikusteak bete nau gehien”

JOKIN LIZEAGA MENDI KORRIKALARIA

Egunerokora bueltatu da Jokin, larunbatean lagun, bizilagun eta besteren omenaldi hunkigarria jasota mendietan, eta lepo bete zen herriko plazan

buelatu zen, pixkanaka. Ohi-tu naiz eskuin begiarekin korrika egiten. Horrelakoetan, tarteka, eskuin begia ixten dut, ezker begiko bista nola dagoen jakiteko. Behin ez dudala ikus-

"LASTERKETAN ZEHAR JENDEA EZAGUTZEKO ASTIA IZAN NUEN, GOZATU NUEN ETA GUSTURA NAGO"

ten jabetuta, aurrera egiten dut.

Aita zegoen Miraballesko aldapa igotzen hasi aurretik, emaztea eta seme-alabak Besabi baino lehenxeago.

Bai, aitarena ez nuen espero, Buruntzara joango zela esan baitzidan. Emaztea eta seme-alabena banekien. Indarra eman zidan familiak, eta bide ertzean pilatu zen jende piloak. Jende asko sumatu nuen, eta omenaldi polita jaso nuen. Bizirik dagoen

pertsonak omenaldiak jasotzea ez da oso ohikoa, baina nik jaso nuen. Urnietar Prestu izendatu nindutenean ere jaso nuen, eta larunbatean, berriz. Era guztietako jendea, gainera: haurrak,

"JASOTAKO ANIMO GUZTIEKIN OSO BETETA SENTITZEN NAIZ, ESKERTUA BIHOTZEZ"

gurasoak, aitonak, langileak, baserritarrak... Oso beteta sentitzen naiz, eskertua bihotzez. Ni ikustera joan zirela sentitu nuen, eta horrek balio handia ematen dio.

Tarteka nahiko bakarrik, baina Adarramendin, Onddin eta Buruntzan jende andana...

Adarra berezia izan zen. Mantso zoaz, oinez, aldapa dago han, eta une hunkigarriak izan ziren. Bakarrik ibili nintzen uneetan ere gustura joan nintzen: Mantale errekatik Etenetara, adibidez, edo Loititik Portu auzora, Hernanin, korrika lanean bakarrik kontzentratuta. Onddin Mamen Altuna joan zen nire alboan egurrean, eta 10-15 ume ere bai 100-150 metroan. Pentsatu nuen, etorkizun ederra daukagu herrian! Adarra puntan Xabi Irastorza lagun mina besarkatu nuen. Bezperan egon ginen, elkarrekin, 10 urte bete baitziren minbiziak bere ama eraman zuela.

Zenbat keinu on, zenbat agur...

Keinu edo agurren bat egiten saiatu nintzen, denei. Oso azkar joan nintzen, eta baten bati kasu egitea pasako zitzaidan, seguru. Kuttuna dudan jendeari keinu bat egiten saiatu nintzen, behintzat. Nire ondoan egon direnak, batez ere, azken hiru urte haue-tan. Segurako Insausti familia, Juanjo Agudo eta Nerea Albizuren taldea, lauzpabost pankartarekin, nire koadrilako lagunak, Negu semearen gelako kideak... Idolo bat zara haientzat, baina lasterketan sufritzen, saiatzen den idoloa, eta bizitzak eman dion tratuaurrean aurrean jarrera ona eduki duen idoloa.

Udaltzainari ere eskerrak eman zenizkion Zaldundegin, pentsa...

Beno, ez nuen espero han egotea. Han zeuden, trafikoa eten zuten eta errepidea zeharkatu nuen. Haiei ere eskerrak eman behar. Jasotakoa bueltatzen saiatzen naiz beti.

Azken 100 metroak, latzak.

Bai. Astoen aldapa bukatu baino lehenago besoak jasotzen hasi nintzen nahi gabe, burrunba latza entzuten nuelako. Zenbat jende gero Kutzako bulegotik plazaraino, ikaragarria... Burua atera nuen aldapatik, eta han zeudenak ni ikusteko hurbildu ziren. Giro sana, jende sana, irribarretsu, pozik... Maitatua naizela sentitu nuen. Sare sozialetan sortzen diren gezurrezko lagunak ez daukat, benetakoak



Azken metroetan dozenaka lagun hurbildu ziren San Juan plaza ingurura. AIURRI

baizik. Hiru urte gogor hauetan, anonimotasunean murgildu izan naizenean laguntza eman dit jende askok, nire berri jakin izan nahi duen jendea, eta horiekin geratzen naiz.

Zerk harritu, harrapatu zintuen ezustean azken tarte horretan?

Beno, jendearen aurpegiak, emozioa, poztasunak, ez? Ez nuen pentsatu jendearen jarrera zein izango zen, baina sumatu nuen jendeak gozatu egin zuela, bizitzen ari garen pandemia garaiko miseriak atzean utzi nahi izan zituela egun batez, edo ordu batzuetan. Nik gozatu nuen, baina jendea gozaraztea atsegin dut, eta lortu nuelakoan nago. Jendea pozik, barrez, malkotan ikustek bete ninduen gehien.

Lasterketa bukatu eta bi ordura jendeak argazkiak eskatzen segitzen zuen, batez ere, umeak.

Beno, protagonista ni izan nintzen egun horretan, eta norma- la izango da. Plazan zegoen jendeak bazekien Onddotik Onddira ze abiaduran pasa nintzen. Jendea etxeferoa noiz lehertu entzun adi zegoen, gailurren batetik pasatzen nintzenean, menditik plazara bueltan zetoirela. Batzuk urduritu egin

zirela ere jakin dut, garaiz iritsiko ez zirelako ustean. Jendea nire martxa jarraitzen ari zen, eta horrek ondo sentiarazten nau, baina gauzak garbi edukita. Korrika azkar egitea gauza bat da, baina azkar edo mantso, hobeak edo txarragoak izan, pertsona arruntak gara, eta ni beste bat. Herritarrei poztasun bat eman dien herritar soil eta xume baten eran sentitzen naiz.

Noiz lasaitu zinen larunbatean? Eseri eta hausnarketatxo egin.

Azkar, Oialume jatetxean bertan. Han txalo zaparrada jaso nuen, eta esan nuen, 'joder!'... Gero, etxean, albistegiak ikusten-eta gustura egon nintzen.

Zenbat kiloko zama kendu duzu gainetik, lasterketa oinaze handirik jasan gabe bukatuta, eta denbora bikain horrekin?

Konfiantza irabazi dut. Aurreko asteetan bukatzeko gai izango ote nintzen ziurtasunik ez neukan. Zama kendu, handia, hainbeste bonbo eman, komunikabideak gainean, eta azkenean proba osatu ahal izan dudalako, eta txukun. Bi aste barru Jaenen ariko naiz, Espainiako Txapelketan, ikusiko da ze maila emateko gai naizen.

Nola begiratzeko diozu etorkizunari? Zer asmo duzu?

Ez naiz eliteko korrikalaria sentitzen. Ez naiz lasterketatik bizi, nahiz eta jardun ahal izateko ahalegin fisiko handiak egin, eta familiari ordu asko kendu. Korrika azkar egiten duen kirolari herrikoia sentitzen naiz, elitekoa baino. Lasterketa batzuk korritu nahi nituzke Munduko Kopan: italiarrak, espainiarrak, ingelesak... Korrika kideak bersarkatu, eta akaso oportetaren familiarekin Espainiako txokoren batera oportetara joaten bagara, ba lasterketaren bat korritzeko probestu.

Sare sozialik ez daukazu, baina whatsapp bai. Zenbat mezu jaso dituzu azken egunetan?

300, 400 bat bai, eta denak erantzuten saiatu naiz. Eskerrak eman nahi dizkiet idatzi edo mendietara hurbildu ziren guztiei. Hiruzpalau ordu pasa ditut eguneko mezuak erantzuten, idazten didatenak lagunak kontsideratzen ditudalako. Haiei eskerrak ematea, gutxienezkoa. Idatzi dutenei, etorri zirenei, eta etorri ezin izan zutenei, herriari eta lagunei, denei nire eskerrik beroenak, bihotz-bihotzez.

"SARE SOZIALETAN SORTZEN DIREN GEZURREZKO LAGUNIK EZ DAUKAT, BENETAKOAK BAIZIK"

"PROBA AMAITUTA EHUNKA MEZU NITUEN ETA DENEI BANAN BANA ERANTZUTEN SAIATU NAIZ"

"BI ASTE BARRU JAENEN ARIKO NAIZ, ESPAINIAKO TXAPELKETAN"



Jokin Lizeagak Buruntzako gurutzea ukitu eta Urnietarako bidea hartu zuen, lasterketari amaiera emateko. AITOR URKIA ETXEBERRIA

Pantailari adi!

Asteburuan Jokin Jimenez urnietarrak koordinatutako lana ikusteko aukera izango da. JOKIN LIZEAGAre balentria, 25 minutuko bideoan.



youtube.com/user/odeunmedia



Bide-segurtasunari buruzko kontzientzia areagotzeko kanpaina Urnietara iritsi da. TRAFIKOA



Trafiko-ezbeharrak gertutik bizi ohi dituztenen lekukotzak ezagutzeko aukera izan zuten ikasleek. TRAFIKOA

Bigarren aukerarik ez denean

Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailak trafiko-istripuak saiheste aldera sortutako ekitaldi ibiltaria da “Don’t be Dummy” proiektua. Aste honetan Urnietara iritsi da bide segurtasuna areagotzeko kanpaina

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Neoizko argiek janzten dute dantzatokia, musika eletronikoaren erritmopean. Alkohola eta kea, batetik; izerdia eta gorputzak mugimenduan, bestetik. Etxera itzultzeko borondatez irten dira jai-girotik bi gazte. Hala moduan ailegatu dira kotxera, eseka. Ibilgailua martxan ipini bezain pronto abiatu dira. Zamatsu ditu betazalak gidariak, eta aurpegia astintzen du, noizean behin, suspertuko delakoan. Bat-batean, kamioi baten klaxonak iratzarri ditu gazteak; berandu, baina. Kale egin diote erreflexuek gidariari, eta emandako bolante-kolpe gogorra ez da aski izan

talka saihesteko. Birrinduta gelditu da kotxea, isilik, errepidea. Anbulantziaren sirenahotsak entzun dira, ondoren. Etxera itzultzeko asmoz utzi dute bi gazteek festa, jakin gabe ez direla sekula helmugara ailegatuko.

Irudi horiekin ekin zioten Urnietako Salesiarren Ikastetxeeko ikasleek, iragan asteko ostiralean (Bigarren Hezkuntzakoak

**“DON'T BE DUMMY.
ZUK EZ DUZU
ORDEZKORIK”
KANPAINA
URNIETARA IRITSI DA**

zein Lanbide Heziketakoak), “Don’t be Dummy” bide-hezkuntza programari. Orain arte, Euskadiko 53 udalerrri bisitatu ditu proiektuak: 117 saio burutu dira, eta, horietan, 149 ikastetxek hartu dute parte.

Errepidean izan behar diren jarreraren gainean kontzientzia hartzea du helburu egitasmoak, eta bai oinezkoiei, bai gidariei zuzendua dago. Hala, berbaldian, soilik, klase bakarrak parte hartu bazuen ere, ikasgelan ipinitako hainbat kamarak medio, beste zenbait taldek ere hitzordua jarraitzeko aukera izan zuten. Dummy pertsonaia-birtualak gidatu zuen mintzaldia, alegia, auto-ekoizleek beren auto

berrien segurtasuna probatzeko erabiltzen duten manikiak. Galdere-erantzun formatuan gidatu zuen saioa: oso interaktiboa bihurtu zuen hartu-eman. Izan ere, ikasleen arreta bereganatzea lortu zuen, eta, ondorioz, are eraginkorragoa izan zen kontzientzia hartzeko ariketa, zeren sakontasunez murgildu baitziren aferan.

Jabetzeko premia

Drogak, distrakzioak eta abia-dura. Horiexek dira hiru hiltzaileak, hain zuzen ere, istripuak izateko probabilitatea hamaika bider handitzen dituzten faktoreak. Hari horri tiraka, segurtasun-neurriez, istripuen aurrean eman beharreko pausoez eta ezbeharren ondorioez mintzatu ziren, besteak beste. Izan ere, trafiko-istripuak dira gazteen heriotza-arrazo nagusi, beste zenbaiten artean: egitasmoaren datuek diotenez, 2019an, 25 urte baino gutxiagoko 5.849 gazte trafiko-istripu batean nahasita egon ziren Euskal Autonomia Erkidegoan. Iazko estatistiken arabera, berriz, 8.625 trafiko istripu izan ziren EAEn; batz bestea, 24 istripu eguneko.

Orotara, 51 pertsona hil ziren iaz, eta horietatik 13 oinezkoak ziren.

Bestalde, trafiko-ezbeharrak gertutik bizi ohi dituztenen lekukotzak ezagutzeko aukera izan zuten ikasleek, era birtualean: ertzainaren, suhiltzailearen eta osasun-larrialdietako teknikariaren hitzen bidez ezagutu zuten errepideko ezbeharren gordintasuna. Ibilgailu birrinduen makina bat irudik mahai-gaineratu zuten errepidea ez dela txantxetan aritzeko leku aproposa. Horrez gain, Gurutzetako Ospitalea bisitatu zuten, errepidearen alde iluna azaletik bizi duten horien lekukotza jasotzeko, baita senitartekoen mina sentitzeko ere.

Latzak bezain hunkigarriak izan ziren kontaketak, oilo ipurdia jartzeko adinakook. Larrutik ordaintzen dira errepideko hanka-sartzeak, baita arinenak ere, eta, maiz, itzulerarik gabeko albo kalte fisikoak zein emozionalak eragiten dituzte. Ongi barneratu zuten ikasleek proiektuaren funtsa: “Don’t be Dummy. Zuk ez duzu ordezkorik”, alegia, errepidean ez dagoela bigarren aukerarik.

KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



Kultur jarduerekin jarraitzeko asmoa dago, beti ere neurriak hartuta. AIURRI

Urnietako Udalak hartutako erabakiak

Eusko Jaurlaritzak ezarritako neurriez gain, Urnietako Udalak beste neurri osagarrien berri eman du

Erredakzioa URNIETA

- **Ekitaldiak:** Ezingo da udal-lokaletan ekitaldirik antolatu.
- **Ikasgela zerbitzua:** Irekita, baina mahai bakoitzean pertsona bat baino ez da egongo.
- **Udal-ikastaroak:** Kiroldegian, Saroben eta Lekaion ez dira ikastaroak etengo baina prebentzio-neurri bereziak ezarriko dira. Baita Gazte Informazio Puntuan, Gaztelekuan eta gizarte eta hezkuntza zerbitzuan ere.
- **Bertan:** Herritarrei gomendatzen zaie benetako beharrezkoak dagoenean bakarrik joatea, garrantzi berezia ez duten gaietarako modu telematikoa lehetsiz.
- **Kiroldegia:** Irekita egongo da banakako erabilerarako, aurrez hitzordua eskatuta.
- **Federatu mailako taldeak:** Jarduerarekin jarraitu ahalko dute.
- **Haur parkeak:** 20:00etatik goizeko 09:00etara itxita.

Eusko Jaurlaritzak ezarritako protokoloa

Funtsean, lau neurri dira:

- **Itxiera perimetrala.** Salbuespen bakarrak udalerrri mugakidera joatea izango lirateke, erosketak egiteko eta jarduera fisikoa aire zabalean egiteko, eta justifikatutako arrazoiak, hala nola lanera, ikastera, medikuarengana edo mendeko pertsona bat zaintzera joatea.
- **Ostalaritza.** Zerbitzua establezimenduaren barruan: 06:30-9:30 eta 13:00-16:30.
- **Ostalaritza-aforoak:** %50 barrualdean eta %100 terrazan. Pertsona guztiek eserita egon behar dute, eta ezin da barran kontsumitu.
- **Kirol jarduerak:** Barruko eremuetan kirol-jarduera oro egiteak ez du lau laguneko taldea gaitutuko. Kirol-instalazio mota guztietako aldagelak eta dutsak itxiko dira.

Astez asteko intzidentzia

ANDOAIN

- **Apirilak 14-20:** 38 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 447,02.
- **Apirilak 07-13:** 29 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 373,63.
- **Martxoak 31-Apirilak 06:** 30 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 340,27.
- **Martxoak 24-30:** 21 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 233,52.
- **Martxoak 17-23:** 14 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 186,82.
- **Martxoak 10-16:** 14 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 140,11.
- **Martxoak 3-Martxoak 9:** 7 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 73,39.

URNIETA

- **Apirilak 14-20:** 19 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 660,33.
- **Apirilak 07-13:** 22 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 402,64.
- **Martxoak 31-Apirilak 06:** 3 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 96,63.
- **Martxoak 24-30:** 3 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 128,85.
- **Martxoak 17-23:** 5 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 128,85.
- **Martxoak 10-16:** 3 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 128,85.
- **Martxoak 3-Martxoak 9:** 5 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 96,63.



Andoainen azken egunetan itxita egon den merkatalgune baten ataria. AIURRI

Andoain gorrian, baina itxiera perimetraletik salbu oraindik

Apirilaren 26ko boletinean eremu gorrian dagoela azaltzen bada, itxiera perimetrala ezarri beharko da

Erredakzioa ANDOAIN

Itxiera perimetrala ezartzeko erabakia Osasun Sailak astelehenero argitaratzen duen ebazpenean argitaratzen da. Astelehenean Andoain ez zegoen eremu gorrian, beraz, aste osoan zehar mugikortasuna baimenduta egongo da. Beti ere, eremu gorrian ez dagoen beste udalerriren batera joateko. Adibidez, Adunara, Asteasura, Usurbilera edo Irunera.

Datorren ebazpena apirilaren 26an argitara emango da, eta zerrenda horretan agertzen diren udalerrietan ezarriko litzateke itxiera perimetrala. Azken bi asteetan Andoaingo udalerriak egoera hori saihestu du.

Urko Vallejo andoaindarrak asteak daramatza datuei buruzko informazio argigarria ematen, Facebook.com/C19Andoain internet atarian. Hauxe dio berak: "Andoaingo kasuan, astelehe-

netik igandera bitarte 28 positiborekin intzidentzia-tasa 400etik behera geratuko da (393,64). Aldiz, 29 positiborekin 400etik gora (400,32)".

Andoaingo intzidentzia-tasa eremu gorriaren paraleloan doa, ia-ia. 400eko langak imana balu bezala, inork nahi ez duen eremu horretara gerturatzen ari da. Asteartean marra gorria zapaldu zuen, eta hurrengo egunetan hortxe jarrai dezake. Baina intzidentziarena matematikaren oinarritutako kalkulua da. Positibotasuna ez bada azken asteotako baino askoz handiagoa, datorren astean ere itxieratik salbu egon daiteke Andoain.

Gipuzkoako egoera txarra ikusita, gerta daiteke Andoainen ere itxiera ezartzea. Astelehenean eta asteartean agertu diren 16 positiboekin, aurreikuspenak ez dira onenak.



Ansa, lehen planoan. EITB

Gaztañaga eta Gurutzeta sagardotegien lehen garaipena

ERREMONTEA Aurrera doa Sagardoaren Txapelketa, Hernaniko Galarretan

Mikel Arberas ANDOAIN

Segurolak eta Larragañak (Gaztañaga) garaipena eskuratu zuten Etxarri-Goikoetxea bikotearen aurka (30-26). Goikoetxeak eta Aizpuruk (Gurutzeta) ere garaipena eskuratu zuten Juanenea-Zubiri bikotearen aurka (30-24).

Partida berdinduak eta oso biziak ikusi ziren astelehen gaueko Erremontari saioan. Andoaingo Gaztañaga sagardotegia aurrera doa txapelketan, baita Goikoetxea eta Ansa urnietarrak ere. Orain arte, maila

ezin hobea erakusten ari dira eta datozen partidei begira lanean jarraitu beharko dute.

Sailkapenean Urriza-Zaldúa (Bereziartua), Ansa II-Labaka (Setien), Segurola-Larrañaga (Gaztañaga) eta Goikoetxea V-Aizpuruk (Gurutzeta) launa puntu dituzte partidu bakarra jokatu. Etxarri eta Barreneaxeak (Oialume Zar) hiru puntu dituzte atzoko bakarra gehituta. Azkenik, Juanenea-Zubiri (Larre Gain) bikotea azken postuan kokatuta dago bi partidetan bi puntu lortuta.



EUSKALDUNA

Asteburu gazi-gozoa

FUTBOLA Euskaldunak sei partida eduki zituen asteburuan; horietatik bi partida irabazi, bi berdindu eta bi galdu zituen. Zapore gazi-gozoa utzi du jardunaldiak. Hala ere, lanean dabilta, datozen partidei begira, ezinbestekoak dituzten puntuak lortu ahal izateko.



Eneko Urruzola. UKE

Jubenil mailako taldeak, garaile

ESKUBALOIA UKEko jubenil mailako taldeak garaile izan ziren, asteburuko partidatan

Erredakzioa URNIETA

Urnieta Artola Harategia senior mailako mutilen taldeak partida garrantzitsua galdu zuen Gure Auzune taldearen aurka (24-20). Mailari eusteko lanean ari dira; asteburuko partida galduta, datorren partida irabazi beharko dute.

Urnieta Quel Abogados senior mailako emakumezko taldeak bizi eta defentsa sendoarekin hasi zuen norgehiagoka; baina partidak aurrera egin ahala, bi taldeen lehia parekatzen hasi zen. Oro har, gol gutxiko partida izan zen eta puntuak Munttarperekin banatu behar izan zituzten (20-20). Lidergotzari eutsi diote urnietarrek.

Jubenil mailako taldeentzat, berriz, asteburu biribila izan zen, jokatuako partida guztiak irabazi baitzituzten. Emakumezkoen jubenil taldeak garaipena eskuratu zuen asteburuan (20-27).

Gizonezkoen Urnieta Guria Jatetxeak norgehiagoka berdindua jokatu zuen ostegunean. Azken mementoan aurkariaren gainetik jauzi egin zuen garaipena eskuratzeko (33-30). Larunbatean beste partida bat jokatu eta berriro ere irabazi egin zuten (19-29). Bi garaipen hauei esker, lehen postuan jarraitzen dute urnietarrek.



Iker Uria eta Nora Mendizabal, artxiboko irudian. AIURRI

Pala, esku pilota eta paleta goman lehiatuko da Andoain

Herriarteko txapelketa jokatu da, maiatzetik aurrera. Andoain herriak parte hartze handia izango du

Mikel Arberas ANDOAIN

Hastear da xarma berezia duen txapelketa, eta herri gisa poz handiak eman ohi dituen. Andoain herriak hiru modalitatetan parte hartuko du, Gazteleku Pelota Elkarteko eskutik. Palaz Debaren aurka jokatu dute lehen kanporaketan. Maiatzaren 2an eta 9an jokatu dira bi norgehiagokak, eta irabaziz gero, finalurrekoetara igaroko dira.

Paleta gomaz Andoainek lehen jardunaldian atsedena izango du. Eta Zestoa eta Debaren arteko norgehiagokatik irabazle ateratzen denaren aurka lehiatuko da, maiatzaren 16an eta 23an. Final zortzirenetan hasiko da lehian, beraz, Andoaingo taldea.

Esku pilotan ere hartuko du parte Andoainek. Aurkari zaila izango du, lehen txanpan: Tolosa. Irabaziz gero, final laurdenetara sailkatuko da.

Pala:

Andoain-Deba:

Maiatzak 2 eta 9.

Final laurdenak.

Partaidetza: 7 udalerri.

Finala: Maiatzak 30.

Esku pilota:

Andoain-Tolosa:

Maiatzak 16 eta 23.

Final zortzirenak.

Partaidetza: 16 udalerri.

Finala: Ekainak 26.

Paleta goma:

Zestoa/Deba - Andoain:

Maiatzak 16 eta 23.

Final zortzirenak.

Partaidetza: 18 udalerri.

Finala: Ekainak 27.


ESKU PILOTAN, ANDOAIN HERRIA TOLOSA TALDE ZAILAREN AURKA ARIKO DA

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa





Aiurri.eus, unean uneko albistegia



Egoera epidemiologikoa, egunez egun



Kirol-hitzorduen jarraipena



Unean uneko albisteak



Koronabirusaren gakoak



Bideo-sorta zabala



Kirol-albisteak



Asteburuko ekitaldiak



Euskararen aldeko egitasmoak



Asteburuko kirol-kronikak

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIAN BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 22

ANDOAIN Dokumentala

"Caminho Longe" dokumentala, deportazioari buruzko euskal ekoizpena.

19:00, Bastero.

ANDOAIN Erakusketa

"Dantza" izeneko erakusketa, izen bereko filman erabilitako jantziak ardatz hartuta.

Azken eguna: Apirilak 30.

ANDOAIN Kanpaina

"Aurreztu Andoain txartelarekin", Salkinen kanpaina. Abantailak txartelaren erabiltzaileentzat.

Azken eguna: Apirilak 30.

URNIETA Deialdia

Kultura, euskara, hezkuntza, kirola, gazteria eta aisialdiko jarduerak finantzatzeko dirulaguntzak eskatzeko epea ireki da. Irabazi asmorik gabeko ekimenei bideratuta dago.

Azken eguna: Apirilak 23.

ANDOAIN, URNIETA Deialdia

"Apelliduetak abizendu" kanpaina martxan dago.

Infoa:

943 300 820 Andoain.

943 008 345 Urnieta.

OSTIRALA 23

ANDOAIN Dantza

Kukai taldearen "Hnuy Illa" ikuskizuna, Sarrionandiak idatzi zuen liburua oinarritzat hartuta.

19:00, Bastero. 12 euro.



Ene Kantak "Liluragarria" ikuskizuna aurkeztera datoz. ENEKANTAK

ANDOAIN Ene Kantak ikuskizunaren saio bikoitza

Sarrera gehienak salduta badaude ere, azken ordura arte kontsultatzeko aukera dago. Izan ere, egoera epidemiologikoa dela eta, gerta daiteke kanpoko ikusle batzuk sarrerak itzultzea. Haurrak gozatzeko moduko ikuskizuna da.

Apirilak 24, larunbata. 12:00 / 16:00. Bastero Kulturgunea.

LARUNBATA 24

ANDOAIN Haur ikuskizuna

Ene kantak taldearen ikuskizuna, "Liluragarria, gorputz barrura goaz" izenburukoa.

12:00, 16:00, Bastero. 4 euro.

ASTELEHENA 26

ANDOAIN Ikastaroa

Batukada feminista. Izena eman daiteke Berdintasun sailan.

18:00-20:00, Leizaran institutua.

IGANDEA 2

URNIETA Dokumentala

Maria Lameirok zuzenduta, Berri Txarrak taldeari buruzko ikusentzunezkoa.

19:00, Sarobe.

OSTIRALA 7

ANDOAIN Dantza

"Codice" ikuskizuna, break dance ikuskizuna.

19:00, Bastero.

STK'21 TIK-TOK TXAPELKETA

SORTU STK-REKIN ZERIKUSIA DUEN BIDEO ORIGINAL BAT BAKARRIK, KUADRILLAN, FAMILIAN... TIK TOK-EN!!

1. SARIA: 150€
2. SARIA: 50€

STK'21 BALKOI APAINKETA TXAPELKETA

APAINDU ZURE BALKOI/LEIHOAK FESTETAN ZEHAZ ETXAKO LEHIAKETAN PARTE!!

1. SARIA: 150€
2. SARIA: 50€

TTAKUNEK KUDEATZAILEA BEHAR DU

Elkartearen kudeaketaz, plangintzaz, giza baliabideen kudeaketa, antolakuntzaz eta jardun-ekonomikoaren kontrolaz arduratzeko. Baliabideak optimizatuz, plan estrategikoa garatuz...

- Ezinbestekoa:**
 - Euskara eta gaztelera ahoz eta idatziz menperatzea.
 - Goi-mailako ikasketak izatea (goi-mailako zikloa, diplomatura, gradua, lizentziatura).
 - Talde gidaritzan eta euskalgintzan eskarmentua.
- Baloratuko da:**
 - Antolakuntza, komunikazioa, lantaldeen koordinazioarako eta giza harremanetarako gaitasuna.
 - Taldean lan-egiteko gaitasuna.
 - Egitasmo berriak sortu eta proposatzeko gaitasuna.
 - Euskara C1 edo C2 izatea.
 - Ekonomia ezagutzak: diru-laguntzetan eskarmentua, zuriaketak, aurrekontuak...
 - Ofimatika ezagutzak.
 - Lasarte-Oria ezagutzea



Bidalai curriculuma apirilaren 28ra arte (egun hori barne): ttakun@ttakun.eus • Geltoki kalea 4. Lasarte-Oria • 943 37 14 48

Jokin Lizeagaren denborarekin abiatutako porraren irabazleak

Javier Legarretak, Joxe Fagoagak eta Juan Mari Esnaolak irabazi dute Kantoi tabernako porra

Andoni Urbistondo URNIETA

101 lagunek eman zuten izena Kantoi tabernak Jokin Lizeagak 'Ezina ekinez egina' mendi lasterketa osatzen pasako zuen denbora asmatzeko. Larunbatean plazan bildutako asko kronoari

begira zeuden, korrikalariari baino, irabaziko zuten sari pus-karekin amesten: Gazta, saltxitxoi eta txorizo bana, eta ardo eta garagardo lote bat. Legarreta, Fagoaga eta Esnaola izan dira garaileak. Zorionak!



Kantoi porrako saridunak. AIURRI



Aukeran dantza taldeko kideak. AIURRI

Antia literatur lehiaketaren sari-banaketa ekitaldia, igandean

Eguerdiko 12:00tan hasiko da ekitaldia Saroben. Aukeran dantza taldeak parte hartuko du

Erredakzioa URNIETA

Udalak, azken urteotako bideari jarraipena emanez, sari banaketa ekitaldiari lotutako kultur ekitaldia antolatzen du. Eguerdiko 12:00tan hasiko da, Sarobe arte eszenikoen gunean.

Urnietako Udalak aurreratu duenez, ekitaldia musika eta dantza ikuskizunez girotuta egongo da. Ana Belen Garcia, Thierry Biscary eta Mixel Ducau musikariekin batera Aukeran dantza taldekoak ariko dira.



Gorka Urbizu. BERRITXARRAK

"Dardara" dokumentala Saroben ikusgai

"Ikusi Arte Tour" agur-bira ardatz duen filma datorren maiatzaren 2an iritsiko da Urnietara

Erredakzioa URNIETA

25 urte taula gaineen eman ondoren, eta taldearen unerik gorenean, Berri Txarrak talde ezagunak geldialdi mugagabea iragarri zuen. Geratu aurretik, baina, azken bira bat egiteko nahia adierazi zuten, mundu osoko zaleak merezi bezala eskertu eta agurtzeko. Bidaia horretan Marina Lameioren kamera izango zuten bidelagun, birak zaleengan sortutako dardara dokumental batean jasotzeko asmoz. Euskal Herrian barrena proiektatzen ari dira, eta ikusle askoren interesa erakarri du.

ZORION AGURRAK



URNIETA

Alain eta Iñaki

Apirilaren 28an Alaine eta 30ean Iñakik urteak betetzen dituzte, zorionak eta muxuak.



URNIETA

Uxue

4 urte bete dituzu dagoeneko. Egun ona pasa izana espero dugu lagunekin ta familiarekin!



ANDOAIN

Ainze Etxeberria

Apirilaren 24an 7 urte egingo dituzu. Asko disfrutatu zure urtebetetze egunean! Asko maite zaitugu!



ANDOAIN

ZORIONAK Unax eta Inge!!

Apirilaren 21ean Unaxek 9 urte egingo ditu eta Ingek 6 egin berri ditu. Orain arte bezala jarraitu. Muxu potolo bana bikote! Gurasoak.



ANDOAIN

Pello

Apirilaren 29an, 10 urte! Egun zoragarri bat opa dizugu etxeko guztiak! Ondo-ondo pasa!

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak webgunean eta Aiurri astekarian. Oso erraza da, eta dohainik! Lau bide dituzu:

www.aiurri.eus

Sar zaitetz "Zorion agurrak" atalean, eta fitxa osa ezazu. Mezua eta argazkia igotzen diren unetik, urtebetetze egunera bitarte, ikusgai izango da webgunean.

Ahal dela, ez dadila tamaina handiko argazkia izan.

diseinua@aiurri.eus

Mezua bidali posta elektronikora, eta idatzi: izen-abizenak, herria, eguna.

Arantzibia 4-5, behea

Etor zaitetz bulegora, Andoainera. Telefono zenbakia: 943 300 732.

Whatsapp bidez:

619 163 537.



Urnietako
udala

www.aiurri.eus

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



• Iritzia
• Postontzia
• Komunitatea

Rikardo Arregi sariaren edizio berria martxan

“Martin Ugalde gogoan” da aurtengo edizioaren lelo nagusia, idazle andoaindarrari gorazarre egin asmoz. Kazetaritza sariaren XXXIII. edizioa da, joan den asteartean Donostian aurkeztu zutena



Esti Alkorta, Alex Huitzi eta Patxi Bastarrika. AIURRI

Alba Cabrera Jauregi URNIETA
Aurtengo Rikardo Arregi Kazetaritza Sariaren aurkezpena egin dute Donostian, Eusko Jaurlaritzaren egoitzan izandako prentsaurrekoan.

Pasa den asteartean izan zen hitzordua eta bertara gerturatu ziren Andoaingo Udaleko ordezkariak: batetik, Alexander Huitzi Alfonso, Andoaingo Udaleko Euskara zinegotzia

zein alkateordea; bestetik, Patxi Bastarrika, Udaleko Euskara teknikaria. Horrez gain, Estibalitz Alkorta ere hartu zuen

hitza, Eusko Jaurlaritzako Euskara sustatzeko zuzendariak.

Idazle andoaindarraren jaio-tzaren lehen mendeurrena ardatz, “Martin Ugalde gogoan” lelopean ospatuko da sari-banaketa, hain zuzen ere, azaroaren 25ean, Andoaingo Bastero Kulturgunean izanen den ekitaldian. “Neurri batean, Martin Ugalde eta Rikardo Arregi batuko ditugu”, adierazi zuen Huitzik, “biak izan baitziren, euskarazko kazetaritza bultzada ematerakoan, aitzindari eta sustatzaile”. Horiek horrela, irailaren 17an amaituko da hautagaitzen berri emateko aukera: nork bere burua aurkeztu dezake, baita beste norbaiten aldeko proposamena egin ere. Orain bi urteko joerari eutsita, aurtengo ere bi sari izango dira: “Kazetaritza Saria” eta “Komunikazio Saria”. Iragan urtean, Euskadi Irratiko “Osasun etxea” saioak eraman zuen kazetaritzari bideratutako saria. Aldiz, “Egunean Behin” jokoa izan zen komunikazioaren arloko saridun.

Euskara suspertzeko tresna baliotsutzat jo zituen Andoaingo alkateordeak kazetaritza eta komunikazioa, eta, hori dela eta, garrantzitsua iruditzen zaio bi

esparru horietan “euskarazko sorkuntza, zabalkundea eta kontsumoa sendotzea eta areagotzea”. Hala, gehitu zuen horretan aletxo ipintzea duela helburu Rikardo Arregi Kazetaritza Sariak. Jarraian, Baztarrikak eman zion jarraipena prentsaurrekoari aurtengo edizioaren xehetasunak zehazte aldera: Kazetaritza Sariari dagokionez, 2020ko apirilaren 16tik 2021eko irailaren 15era bitarte edozein euskarritan euskaraz plazaratutako kazetaritzalanak aurkeztu ahal izango dira. Bestalde, Komunikazio Sarian, Udaleko Euskara teknikariaren hitzetan, “oso garrantzitsua da berritzailea izatea edozertan; kalitatezkoa, bide urratzailea izatea, hots, bide berriak irekitzen dituen zerbait euskal komunitatearentzat”.

Hitzordua borobiltzeko, Alkortak adierazi zuen euskarak hedabideetan izandako garapenaren lekukotzarik bikaina dela Rikardo Arregi Kazetaritza Saria: “Zorionez, non begiratu, zer baloratu eta nor saritu, inoiz baino aukera gehiago ematen dute euskarazko hedabideek eta euskaraz landutako komunikazioak”.

“MARTIN UGALDE GOGOAN” LOPEAN OSPATUKO DA AURTENGO SARI-BANAKETA

AURREKO EDIZIOAN BEZALA BI SARI NAGUSI IZANGO DIRA: KAZETARITZA ETA KOMUNIKAZIO SARIAK



HEDABIDEekin ERE BAI



AIURRI, ESKUALDEKO NORTASUN HITZAK



28 €

Harpidetza egiteko,
Aiarri.eus webgunean:
aiurri.eus/bazkidetu/



AIURRIKO HARPIDETZA KANPAINA BEREZIA

Urte osoan zure pantailan agertzen gara

Bide beretik jarraitzeko harpidedun gehiagoren beharra dugu

Izan zaitez harpidedun, eta pantailan ikusten dituzun albiste, bideo eta argazkiez gain, Aiurri aldizkaria eta astekaria etxeraino eramango dizkizugu

Apirila-abendua bitarteko eskaintza honen kostua 28 eurokoa baino ez da INOIZ EZ DA BERANDU!

BAT EGIN GUREKIN, BAT EGIN TOKIKO PRENTSAREKIN

***OHARRA:** Dagoeneko harpideduna bazara ez duzu ezer egin behar. Kanpaina hau HARPIDEDUN EZ DIRENEI zuzenduta dago